

Homilia urratsak, Ebanjelioaren ildotik

Abendualdiko 2. Igandea

2009 Abenduak 6 (C urtea)

Patxi Otamendi

Baruk 5, 1-9

Filipoarrei 1, 4-6. 8-11

Lukas 3,1-6

- Lukasen ebanjelioaren ia hasiera honetan oraindik Ebanjelioaren mamiaren aurkezpenean gaude. Gaurko lehen esaldia garai hartako egitura eta agintari politikoaz mintzo zaigu. Boterea trinkoa zen, sare bezala antolatua zegoelako. Ematen diren datuak historikoki ez dute hutsik egiten. Mezua hau da: hemen azalduko dena historian txertatua dago. Kontuan izan behar da Lukasek ebanjelioa Teofilori eskaini ziola, eta Teofilo erromatar ofizial bat zela. Beraz, Jesusen bizitza eta ekintzak testuinguru sekularrean kokatuak daude.

Horrezaz gain, Maria eta Zakariasen ametsen kimu berri bat antzeman daiteke. Indar askatzaile bat sortzen ari delako: Joan Bataiatzailea. Jainkoarekin zerikusia duen zerbait berria hasi da basamortuan hedatzen, ez botere-guneetan.

- Basamortua espiritualtasun gunetzat hartua zen. Bertan Israel herriak Jainkoaren nahia eta promesak ezagutu zituen. Basamortua ere bazen herriaren samina, kexa eta ezinegonak agertzeko lekua. Edo zerumuga berri bat ikusteko behatokia.

Gaur egungo gizarte urbanoko biztanleak ere basamortua leku berezizat dute: handitasun erakargarrikoa, edertasun arruntekoa...

- Garai hartan iraultza egitasmoak bultzatu nahi zituzten taldeentzat basamortua estrategikoa zen. Harako joera zuten taldek, armatuak zein bakezkoak, bertan hobeto antolatzeko edo hausnarketa eta predikuak zabaltzeko. Baita zerbait sortu nahian zebiltzan bestelako taldeak: profetismoari lotuak... Josefo historialariak talde eta norbanako ugari aipatzen ditu, Joan Bataiatzailea eta Jesus ere horien artean kokatuz.

Nahiz eta Jesusen egitasmoa militarra ez izan, jendearen irudipenean bazegoen indarra eta garaipen mesianikoa erabiliko zuenaren itzaropena.

- Joan Bataiatzaileak bihotz aldaketa eskatzen duenean Israelgo tradizioan ohikoa zen zerbaitetaz ari da: akatsetaz damutu eta konponbideak eraikitzea. Baina boterearekin arazoak izango ditu. Zergatik? Bihotz aldaketa, bekatuen damutze eta barkamena, Tenpluaren zeregina zelako. Beraz ez zen legearen aurka ari, baina bai beste batzuen boterean esku-hartzen.

Berdin gertatuko zaio Jesusi, elbarriari (Mark 2:1-12) Jainkoaren barkamena eskaintzen dioenean. Edo Jerusalem agintari mesianiko gisa sartzen denean.

- Joanen beste ekintza harrigarria giro hartan: jendea urez bataiatzeak esan nahi du garbiketa erritua berak egiten zuela. Ohituraren arabera, norbanako bakoitza zen garbiketa erritua lantzen zuena.
- Isaiastik hartutako irudiak (mendiak beheratu eta ibarrak goratu) aldaketa honek sakonera, erroetara jotzen duela adierazi nahi dute.

Eta goia jotzen duen esaldia: “eta denek ikusiko dute Jainkoaren salbamena”. Bakea eta salbamena guztiek ezagutu eta gozatu ahal izateak zera dakar: norbanakoen bihotz aldaketa besteentzat onura bide dela. Norbere hobekuntzak besteentzat askatasuna, justizia, bakea dakar.